

## 1. ZER DIRA?

Gaitasuna neurtzeko hainbat probaz osatutako ebaluazioak dira. Hezkuntza Departamentuak urtero egiten ditu, Lehen Hezkuntzako (LH 4) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH 2) etapen erdian, Nafarroako ikastetxe guztietan, oinarrizko hainbat gaitasunen eskuratzeko-maila ezagutzeko.

## 2. ZER GAITASUN EBALUATZEN DITU?

### LHko 4. mailan:

- |                          |                                     |
|--------------------------|-------------------------------------|
| B/D EREDUA<br>A/G EREDUA | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Gaztelaniaz) |
|                          | ⇒ Matematika gaitasuna              |
|                          | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Ingelesez)   |
|                          | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Euskaraz)    |

### DBHko 2. mailan:

- |                          |                                     |
|--------------------------|-------------------------------------|
| B/D EREDUA<br>A/G EREDUA | ⇒ Matematika gaitasuna              |
|                          | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Gaztelaniaz) |
|                          | ⇒ Zientzia gaitasuna                |
|                          | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Ingelesez)   |
|                          | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Euskaraz)    |

## EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK

### Lege esparrua

- ◆ 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, 144. artikulua.
- ◆ Ikasturte hasierako jarraibideak. 231/2022 Ebazpena, ekainaren 10ekoa. I. Eranskina, I. B), 4.1. artikulua. II. Eranskina, I. B), 4.1. artikulua.

# EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK

2022-2023  
IKASTURTEA

## Ebaluazio Atala

### 3. NOIZ EGITEN DIRA PROBAK?

DBHko 2. mailan: apirilaren 19, 20 eta 21ean.

2023ko apirila						
al	ar	az	og	or	lr	ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

LHko 4. mailan: maiatzaren 8, 9, 10 eta 11n.

2023ko maiatza						
al	ar	az	og	or	lr	ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

### 4. NORK ANTOLATZEN DITU?

Probak gaien adituak diren eta ikasgelarekin harremanetan dauden irakasle-taldeek prestatzen dituzte.

Hezkuntza Departamentuak proben prestaketa koordinatzen eta gainbegiratzen du eta koadernotxoak inprimatzen eta banatzen ditu.

Ikastetxe bakoitzeko irakasleek probak aplikatu eta zuzendu egiten dituzte.

### 5. ZERTARAKO BALIO DUTE? ORIENTATZEKO, HOBETZEKO ETA INFORMATZEKO

- ◆ Hezkuntza Departamentuak, **bere jarduerak bideratu ahal izateko**, hezkuntza-sistemaren mailari buruzko informazioa eskuratzeko eginkizuna du.
- ◆ Ikastetxeek **hobekuntza-planak** ezartzeko eta neurri espezifikoak hartzeko erabiltzen dituzte.
- ◆ Familiak eta ikasleek informazio osagarria jasotzen dute.

### 6. NON EGITEN DIRA?

Ikasleen ikasgelan, ikastetxeko irakasleekin.

### 7. NOLAKOAK DIRA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK?

- ◆ **Zentsalak dira:** ikasle guzti-guztiak egin behar dituzte.
- ◆ **Estandarizatuak:** probak berberak dira ikasle guztientzat eta egun eta ordu berean egiten dira.
- ◆ **Zehatzak eta objetiboak dira.**
- ◆ **Gaitasunak neurtzeko dira:** etapan zehar lortutako gaitasunak neurtzen dituzte.

### 8. NOLA AZTERTZEN DIRA EMAITZAK?

LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek onlineko testuinguru-galdetegi bati erantzuten diote, **ikastetxearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEKa)** lortzeko aukera ematen duena. Horretan oinarritua, ikastetxeak ebaluatutako gaitasun bakoitzean zenbatetsitako puntuazioa kalkula dezakegu; hau da, ikastetxe bakoitzak bere testuinguru sozioekonomikoa eta kulturalaren arabera lortu beharko lukeen puntuazioa. Inkesta honetan ikasleek emandako erantzunak erabat **anoni-moak** dira (erabiltzaileak eta pasahitzak ez daude persona bati lotuta).

Ekainean hainbat txosten lortzen dira:

- **Orokorra:** Nafarroa osokoa.
- **Ikastetxearena:** ziklo edo departamentu bakoitzak eta zuzendaritza-taldeak nahitaez egin behar dituzte azterketa, balorazioa eta hobekuntza-proposamena.
- **Banakakoa:** familia bakoitzak gaitasun bakoitzeko emaitzen gaineko txosten bat jasotzen du.

### 9. ONDORIO AKADEMIKORIK AL DUTE IKASLEENTZAT?

**Ez.** Maila gainditzea eta ikasleen orientazio akademikoa ez daude proba horien emaitzaren mende. Era berean, ikastetxearen puntuazioa ez da argitaratzen.